

Session 2010

**CONCOURS DE RECRUTEMENT
DE PROFESSEURS DES ECOLES**

"Concours Spécial"

Épreuve écrite
BASQUE

Du Lundi 26 avril 2010 de 13H30 à 16H30

Durée : 3 H - Coefficient : 2

L'usage des calculatrices et du dictionnaire est interdit.

ETORKIZUNA

- AMA : hildakoak, nora eramaten dituzte ?

Amak ez entzunarena egin du, alabak galdera errepikatuko ez duen itxaropenarekin.

- Amaaa. Galdera bat egin dizudalaaa...

5 - Zein galdera, laztana? Barkatu ez dut entzun. Dena dela, ez al zaizu iruditzen mantsoegi zoazela zure askariarekin ? Ale, animo, ogitartekoa amaitzen baduzu laranja-zukua egingo dizut eta.

- Ea hildakoak nora eramaten dituzten galdetu dizut, ama.

10 - Hiladakoak ? Ba, bueno, batzuk lurperatzen dituzte. Horretarako dira kanposantuak; badakizu, Iparraldeko parkerako bidean dagoen lorategi hori... Paretik pasatzen gara maiz.

- Lurperatu egiten dituztela?

- Bai, lurperatu, lur azpian sartu.

- Lur azpian : biluzik?

15 - Ez, ez, jantzita. Lehenengo egurrezko kutxa batean sartzen dituzte, eta kutxa da lurrean egindako zuloan ipintzen dutena; hori hilobia deitzen da. Gero lurrez estali eta bertan uzten dute.

- Batzuk lurperatzen dituztela esan duzu. Eta besteak?

- Beste batzuk erraustu egiten dituzte.

20 - Erraustu ?

- Bai erratzen dituzte ; errauts bihurtu. Labe berezi batzuetan.

- Eta zer egiten dute errautsekin ?

- Ba... batzuk leku jakin batean haizatzen dituzte, hildakoari asko gustatzen zitzaion lekuren batean adibidez. Beste batzuk, berriz, ontzi berezi batean gordetzen dituzte.

25 - A...

- Baina, esan, Ixiar, nork hitz egin dizu hildakoei buruz ?

- Iñakik.

- Iñakik?

- Bai, ikastolakoak, gure gelakoak.

30 - Eta zer dela eta kondatu dizu hildakoei buruz?

- Bere aitak esan diolako egunen batean hilko dela.

- ...Hilko dela...? Baina... Nola...?

- Bai horixe, egunen batean hilko dela. Eta bere aita ere bai.

- Eta kontatu al dizu zer gertatzen zaien hiladakoei hil ondoren?

35 - Aitak esan zion zerura joaten direla, eta izar bihurtzen direla han : horregatik daude horrenbeste. Hala al da?

- Bueno, hori da batzuek pentsatzen dutena.

- Beraz, lurperatzen dituztenak hilobitik atera eta zerura abiatzen dira?

- ...

40 - Eta errausten dituztenak ama? Nola egiten dute horiek zerura igotzeko, eta izarren moduan pizteko?

- Esan dizut ba hori pertsona batzuek pentsatzen dutena dela, Ixiar.

- Eta zuk? Zer uste duzu zuk, ama?

45 - Ba... ba ez dagoela ezer. Hil ondoren ez dagoela ezer. Desagertu egiten direla hildakoak, animaliak bezala.

- Ni hilko naiz, ama?

- Ez, zu ez laztana, zaude lasai.

- Eta zu, amatxo ?

50 - Ezta ere. Eta orain, segi jaten, edo ez dugu sekula amaituko. Lagunekin parkera jaitsi nahi baduzu hobe duzu ogi apurrik ez uztea, ados ?

Geroago, Ixiar oheratu ondoren, etxeko androideak prestatu eta zerbitzaturiko Meunière mihi-arraina afaltzen ari direla, amak bota dio aitari :

- Heriotzaren kontuarekin hasi zait gaur zure alaba.

- Hara!

- "Hara" : hori al da bururatzen zaizun guztia?

- Tira, emakumea, ez da horrenbestekoa, ezta?

- Eskolako batek komentatu dio. Iñaki delako batek. Ezagutzen al duzu? Ba al dakizu zeintzuk diren bere gurasoak?

- Iñaki, Iñaki... zein esaten duzu, ile horiska duen hori, estratobus geltokikoa?

) Abizena Argandoña duela uste dut... plaza ondoko domoeteka batean bizi dira, oker ez banago.

- Zer uste duzu... hilkorrak direla.

- Ez nuen sekula horretan pentsatu, baina... bai, posible da.

- Nik uste nuen, Lizeora bidalita, Ixiartxo ez zela halako jendearekin nahastuko.

5 - Hiriko eskolarik garestienetarikoa bat da, eta horregatik aukeratu genuen. Izan ere, ez dut uste hilkor asko egongo denik bertan matrikulatuta. Baina Lizeoak ezin du bazterketarik egin, kuotak ordainduz gero behintzat, eta are gutxiago hilkorren eta hilezkorren artean. Jaurlaritzaren diru-laguntza galduko luke bestela.

- Ba ez zait ondo iruditzen, Imanol. Eta gure alaba Iñaki horren lagun mina egiten bada? Oso harreman desorekatua izango litzateke. Iñaki hori hil egingo da egunen batean, ezinbesteko da, eta horrek min haundia emango lioke gure Ixiarri. Uste nuen horretaz hitz egin genuela, bakarrik hilezkorrekin ibiltzea komeni zitzaiola gure alabari.

- Bost urte besterik ez ditu, Maite! Egon lasai.

5 - Halere... Eta bestalde, ez dut ulertzen, Lizeora bidaltzeko adina diru izanda, nolatan ez ziren gai izan semearentzat hilezkortasunprograma genetiko bat ordaintzeko. Krudelkeria iruditzen zait.

- Ez dakigu zergatik ez duten egin. Agian umea jaiotzera zihoanean ez zeukaten diru hori. Eta, bestalde, badago hilezkortasuna arbuiazen duenik ere, ondo dakizu, nahiz eta dirua izan.

0 - Ez dut sekula ulertuko, benetan.

Iban ZALDUA, Etorkizuna (ipuin bilduma), ALBERDANIA, 2005

COMMENTAIRE GUIDÉ

Idazki honen azterketa eginen duzu ondoko gogoeta-ardatz hauen inguruan :

1. Ama eta Ixiar, alabaren arteko harremana, azter eta azal ezazu
2. Ipuin errealistetik fantastikora. Erakuts ezazu idazleak nola sarrazten duen fantastikoa ipuin honetan.
3. Euskal herrian fantastikoak aspaldian bere lekua badu. Zer deitzen da "Euskal mitologia"? Zer zen bere funtzioa?

TRADUCTION

Zati honen frantsesezko itzulpena eginen duzu :

"AMA: hildakoak, nora eramaten dituzte? ... gordetzen dituzte" (1. lerrotik 24. lerrorat)